



AMURRIOKO "FELIX MURGA" MUSEO ETNOGRAFIKOA



EUSKAL HERRIKO ZERAMIKAREN BILDUMA



HELBIDEA:

ALDAI KALEA, 5 ZK. AMURRIO
01470 (ARABA)

TELEFONOA:

(945)891450

SARRERA DOHAINIK

ORDUAK:

ASTEARTE ETA OSTEGUNEZ
ARRATSALDEKO 5ETATIK 7AK ARTE
ZABALIK.

BISITA ITUNDUAK: SALVADOR VELI-
LLAREKIN HARREMANETAN IPINI.

MUSEOLOGI PROIEKTUA, MUNTAIA

ETA DISEINUA:

 TRASFORMA

ARGAZKIAK:

Gert Voor In't Holt

ESKERRAK ZOR DIZKIEGU HONAKOOI: Enrique
Ibabe, Federico Garmendia, Nicolás
Agirrebeitia, Blanka Gómez de Segura
eta Juanjo Galdos, Errestaurazio Ser-
bitzua.

IRUDIAK: Enrique Ibabe "Notas sobre cerá-
mica popular vasca".

Enriquek egindako ikerlanetan oinarri-
tutako testuak.

"Euskal Herriko Zeramikaren
Bilduma" izenpean aurkezten da
Amurrioko Museo Etnografikoaren
lehenengo urratsa.

Hemen erakusten dena, Félix
Murgak dohaintza, lagapen, eros-
keta eta indusketak direla medio
bildutako pieza-multzotik aukeratu-
tako sail bat da. Bilketa-lan hori
1978. urtean hasi zen "Misión
Rescate" taldearekin, eta gaur
egun Aztarna taldearekin jarrai-
tzen du, Aiara Haraneko nekazal
kulturaren lekukotasunak eta gau-
zakiak bilduz.

Urte hauetako etengabeko lan
porrokatuari esker bildutako mate-
rial guzti hori, berriztatu, katalo-
gatu eta haren azterlan museologi-
koa egin ondoren, Amurrioko
Museo Etnografikoan aurkitzen da
ikusgai.

Euskal Herriko zeramikaren bil-
duma Museoaren atal bat bezala
aurkezten da eta adituek Euskal He-
rriko onenarikotzat jota dago, bai
agertzen dituen tipologia ezberdi-
nengatik, bai era askotako erabile-
rengatik, eta bereziki apiandutako
plater eta goporren multzoa-
rengatik. Azken hauek Euskal He-
rriko zeramika tradizionalen
ezohizkoa den apaindura-aberas-
tasuna daukate, agertzen diren
gai ezberdinengatik (geometri-
koak eta landarezkoak), eta batez
ere beren koloreengatik (kobalto-
urdina, berdeak eta marroiak).
Guzti horrengatik, arlo honetako
adituentzako desafio handi bat
dira, eta euskal zeramikari buruzko
geroko ikerlanentzako oinarria.

Museo hau martxan jartzeko
helburu nagusia Félix Murgak sus-
taturiko bilduma gordetzea eta,
bera erakutsiz, gizarteari eta be-
launaldi berriei gure herriaren
kondaira eta herri-kultura agerta-
raztea da.

Pedro Manuel Ramos Pablo R. Isasi
Kulturako Foru Diputatua Amurrioko Alkatea

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE AMURRIO
ALAVA
AMURRIOKO HIRIBILDUKO UDALA
ARABA



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia
Departamento de Cultura
Kulturako Foru



Urte hauetan zehar Félix Murgak bildutako Euskal Herriko zeramika-multzoa, nekazal bizitzaren eremu ezberdinei (laborantzako lanak, erlijiozko errituak, etxeko lanak, e.a.) dagozkien 160 piezak osatua da.

Pieza hauek, buztin errez eginak eta gehienak esmaltatuak, XVIII. mendean gero belaualdi batetik bestera igarotako artisaun teknika zaharrak erabiliz egin ziren. Teknika hauek piskanaka baztertuta gelditu ziren industri prozesuak eta material berriak sartzearen ondorioz.

Aintzinarako eltzegileek erabilitako osagaiak eta teknikak honelakoak ziren: lehendabizi, lur gorria eta zuria ateratzen zen, proportzio aldakorretan nahasteko; gero xehatu egiten zen, ura gehitzen zitzaion buztina lortzeko, eta hau zanpatu eta oratu behar zen, tor-nura eraman eta bertan ontziak modelatu baino lehen.

Tornuan modelatuta gero, iragazkaiztu egiten ziren beiratzeko edo esmaltatzeko teknikak erabiliz. Azken hau zen ohizkoena Euskal Herriko buztintzintzan (batzuetan apaindu egiten ziren). Azkenik, labea prestatzen zen haiek erretzeko. Euskal Herriko kondairan tradizio honen aipamen ugari aurkitzen dira (Durangon XVI. mendean, Lizarran XIII. mendean). Buztintzintza-lantegirik zaharrenetako bat Ullibarri de los Olleros herrikoa da, 871. urteko agiri batean aipatuta agertzen dena.

Enrique Ibabek "Notas sobre cerámica popular vasca" izeneko lanean berrogeita hamar buztintzintza-gune baino gehiagoko zerrenda jasotzen du, horien artean Arabakoak nabarmentzen direla beren tradizio handiarengatik, aintzinasuna nola ekoizpen kopuruaren aldetik.

Arabako buztintzintza-lantegi ezberdinei buruzko azterlanek erakusten dute beraien arteko lotura estuak zeudela: eltzegile-familien arteko ezkontzak, eltzegintza batetik beste baterako joan-etorriak, eta abar...

Beste alde batetik, merkatuetan beste herrialde batzuetatik ekarritako tresnak saltzen ziren. Hau dela eta, zaila da askotan Euskal Herrian aurkitutako piezen egilea edo jatorria zehaztea.

Museo honetan Arabako eltzegile-familia errepresentagarrienek egindako gauzak biltzen dira. Horien azken kideek (José Ortiz de Zarate, Federico Garmendia, Nicolás Agirrebeitia) beren aitonek, aitek eta beraien Gerra Zibilaren aurrean eta 70eko hamarkadara arte egin zituzten piezak berrezargutu eta identifikatu zituzten.



Argazki L. Ziarrusta. 93'

Federico Garmendia Elosutarrak Fructuoso Fernández de Larrinoarekin lan egin zuen (azkenengo honen tornua bere iloba Jose Antoniok Museo honi lagatu dio). Haiek biak Agurainera eta gero Narbaixara aldatu ziren. Beren piezak, berun, hondar eta Linares-ko alkohol mineralaz osatutako esmalte gardenaz egiten zen engobearekin lortutako kolore hori bereizgarriaz nabarmentzen dira.

Nicolás Agirrebeitiak Ullibarri-Ganboan lan egin zuen 1957ra arte. Urte honetan, Agirrebeitia familiaren buztintzintza-lantegia Zadorrako urtegiak estalita gelditu zen. Bertan Euskal Herriko laberik handienetako bat zeukaten, 80.000 piezarako edukiera zuena.

Aipatzea merezi duen beste labe bat José Ortiz de Zaraterena da, Elosuko

Olleras auzoko buztintzintza-lantegian. Leku hau, gaur egun berriztatuta eta museo bihurtua da.

Hiru hauek dira: Nicolás Agirrebeitia 1925, Federico Garmendia 1922 eta José Ortiz de Zarate 1913. Hauek, Zegamako Gregorio Aramendirekin batera, Euskal Herriko azken eltzegileak dira.

Atalak irizpide funtzional baten arabera eratu dira. Horieta, barruko koloreaz bereizten diren beira-arasetan sailkatuta daude piezak.

Janariak gordetzeko

Janariak gordetzeko edo, noizean behin, sarraskia egitean erabiltzen ziren. Gantzotziak edo poteak Ullibarri-Ganboako piezarik ohizkoenak ziren.

1- Gantzotzia. Egilea: Armando Torrado. Navarrete-Errioxa

2- Gantzotzia. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1950 ingurukoa.

3- Gantzotzia. Egilea: Nicolás Agirrebeitia. Agirrebeitia buztintzintza. Ullibarri-Ganboa. 1940 ingurukoa.

4- Gantzotzia. Egilea: Epifanio Galdos. Ullibarri-Ganboa.

5- Mintegia. Ametzaga.

6- Potea. Ametzagako buztintzintza. Jatorria: Karmeldarren komentua, Murgia.

7- Potea. Ametzagako buztintzintza. Jatorria: Karmeldarren komentua, Murgia.

8- Gatza, azukrea, goilareak gordetzeko potea. Ametzagako buztintzintza. Jatorria: Karmeldarren komentua, Murgia.

9- Gantzotzia. Egilea: Sabino Ortiz de Zaratate. Ollerias.

10- Gantzotzia. Egilea: Alejo Agirrebeitia. Agirrebeitia buztintzintza. Ullibarri-Ganboa. 1918 baino lehenagokoa.

11- Gantzotzia. Egilea: Marañón - Nafarroa. Jatorria: Laudio

12- Gantzotzia. Jatorria: Zuia.

13- Gantzotzia. Identifikatugabea. Jatorria: Orduña

14- Bazina. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1942.

15- Bazina. Egilea: José Ortiz de Zaratate. Ollerias

16- Gantzotzia. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1950.

17- Gantzotzia. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1950.

18- Gantzotzia. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1950.

Isurkiak edukitzeko

Tipologia aldetik, ontzirik bereizgarriena Pirineo aldeko pegarra da, "pedarra" ere delata, Euskal Herrian III. mendetik gaur arte aurkitzen dena. Baita ere, 41 zenbakiduna nabarmentzen da bere aintzinasunagatik eta apainketa bereziagatik.

19- Edaska. Egilea: Fructuoso Larrinoa

20- Oilaskoen edaska. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1950-55. Jatorria: Gasteizko Apaizgoitegia.

21- Oilaskoen edaska. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1950-55. Jatorria: Gasteizko Apaizgoitegia.

22- Pegarra. Identifikatugabea. Jatorria: Egiluz familia, Untza.

23- Pegarra. Egilea: Galdos buztintzintza. Ullibarri-Ganboa. 1940 ingurukoa.

24- Pegarra. Egilea: Haro, Errioxa. Jatorria: Marañoko base-mia, Aiora

25- Ur-pitxerra. Egilea: Gantzabal buztintzintza. Ametzaga. Murgia. 1936 baino lehenagokoa.

26- Ur-pitxerra. Egilea: Gantzabal buztintzintza. Ametzaga. Murgia. 1936 baino lehenagokoa.

27- Ur-pitxerra. Egilea: Gantzabal buztintzintza. Ametzaga. Murgia. 1936 baino lehenagokoa.

28- Ur-pitxerra. Egilea: Gantzabal buztintzintza. Ametzaga. Murgia. 1936 baino lehenagokoa. Jatorria: Domaikia.

29- Ur-pitxerra. Egilea: Gantzabal buztintzintza. Ametzaga. Murgia. 1936 baino lehenagokoa.

30- Ur-pitxerra. Egilea: Gantzabal buztintzintza. Ametzaga. Murgia. 1936 baino lehenagokoa. Jatorria: Murgijako baserria.

31- Txongila.

32- "Pedarra". Egilea: José Ortiz de Zaratate. Ollerias 1930 Jatorria: Lanbarriko baserria, Luxaondo.

33- "Pedarra". Egilea: Sabino Ortiz de Zaratate, Ollerias 1930. Jatorria: Luxaondo. Amurrio.

42. Kazuela. Identifikatugabea.

43. Kazuela. Jatorria: Rotaetxe etxea, Okondo.

44. Eltzea. Jatorria: Rotaetxe etxea, Okondo.

45. Gaztaineltzea. Bilboko zaharkitzaile bati erositua.

46. Eltzea. Identifikatugabea.

47. Eltzea. Identifikatugabea.

48. Eltzea. Identifikatugabea.



Mahairakako ontziak, apaingarriak eta beste

Etxean erabiltzeko gauzak dira.

49- Ontzia. Jatorria: Barrueta baserria.

50- Fruitontzia. Jatorria: Okondo.

51- Pitxerra. Egilea: Urrunaga Ametzaga.

52- Aspila. Egilea: Agirrebeitia buztintzintza. Ullibarri-Ganboa. 1950 ingurukoa. Jatorria: Artzniegako Araudun Seroren komentua.

53- Katilua. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. 1970. Jatorria: Karmeldarren komentua, Murgia.

54- Katilua. Jatorria: Karmeldarren komentua, Murgia.

55- Katilua. Egilea: José Ortiz de Zaratate. Ollerias. Jatorria: Gregorio Fernández de Larrinoa.

56- Txokolate-kikara. Jatorria: Ozaetako eliza.

57- Katilua. Jatorria: Galarreta.

58- Katilua. Identifikatugabea.

59- Katilua. Ozaetako eliza.

60- Platera. Egilea: Federico Garmendia. Larrinoa buztintzintza. Narbaixa. Jatorria: Karmeldarren komentua, Murgia.

61- Urbedeinkatu-ontzia. Jatorria: Zamorro-Delika.

62- Platera. Identifikatugabea.

63- Platera. Jatorria: Ozaetako eliza.

64- Kikara. Identifikatugabea.

65- Platera.

66- Platera. Jatorria: Ozaetako eliza.

67- Platera. Jatorria: M. Dolores eta Patrocino Elejalde.



Barru zuria daukaten beira-arasetan aurkitzen diren ontziak, Mikel Ruiz de Gordejuelak, Iñaki Ibarluzeak eta Joseba Urruzak Ozaeta aldean aurkitutako plater, platerxo, gopor eta katiluak dira. 1984. urtean Félix Murgak berreskuratua. Kristau hilobietan giza-gorpuzkinekin lurperatuta zeuden. Beren apainketaren aberastasun eta ezberdintasunagatik, esmalte zuriaren gainean kolore urdinak (kobalto-oxidoa) edo berdeak (kobre-oxidoa) eta marroiak dituztela, Euskal Herri guztian parerik ez duen bilduma bat osatzen dute.

Apainketa geometriko eta landarezkoarengatik, Ixona, Egileta eta Erentxun aldean eginak izan daitezke. Urdinak XVI eta XVII. mendeetan koka daitezke. Apainketa kolore berdez eta marroiez eginda daukatena, XIX. mendearen erdialdekoak direla eman daitezke.